



Bidasoa - Txingudi

BIDASOA-TXINGUDI MUGAZ GAINDIKO PARTZUERGOA

ALBISTEAK

BIDASOA-TXINGUDI

www.irunhondarribiahendaye.com

EGUBERRIETAKO JAIK BIDASOAREN INGURUAN

Berehala ditugu ganean Eguberriak: kaleak argiz beteko dira urte amaierako gauak argiztatzeko, lagunak eta familiak bildu egingo dira elkarrekin harrera egiteko urte berriari, elkarri barreak eta opariak eskainirik. Bereziki aberatsa da jardueretan gure ingurua, eta oso pertsonaia ospetsuren bilgune, bertan ikus baititzakegu Papa Noel eta Olentzero abenduaren 24an eta 25ean eta Meltxor, Gaspar eta Baltasar erregeak urtarrilaren 5ean eta 6an.

Une egokia da Bidasoa-Txingudi Mugaz gaindiko Partzuergoa osatzen duten hiru udalerrientzat adin guztietarako jarduera familiarak emendatzeko. Eta jaiari amaiera emateko, ez dago urtarrilaren 6an, gutarrek batean, hiru hirietan dauden gozotegi ugarietako batera joatea bezalakorik Errege Opil entzutetsua dastatzera.

Irunen eta Hondarribian:

San Tomas Azokarekin hasiko dira jaiak (abenduaren 21ean), sagardoa eta txistorra dastatu ahal izango dira egun osoz **Irungo** Urdanibia plazan eta **Hondarribiko** Gipuzkoa plazan.

Gainera, **Irunen**, Eguberrietako Haur Parkea dago antolatuta FICOBAn abenduaren 26tik urtarrilaren 4ra arte, ugari izango dira jostatzeko proposamenak, eta **Hondarribian** hirigune historikoko harresietatik hurbil instalatutako Belen Bizia izango da protagonista, abenduaren 28an.

Ekitaldi kopuru handi bat antolatzen da **Irun eta Hondarribiko** merkatariekin batera elkarlanean jarduteko egitarauen esparruan, bereziki Gabonetako kontzertuak eta azokak, 80 m²-ko haur gune bat hainbat jarduerarekin **Irungo** Pio XII.a plazan, izotz pista bat **Irungo** Zabaltza plazan, eta bideomapping **Hondarribiko** Gipuzkoa plazan, beste animazio batzuen artean.

Hendaian:

Desfile fantastiko batek zeharkatuko du **Hendaiako** hirigunea abenduaren 14an, Papa Noel karrozan, Gabonetako iratxoak lagun, euren lera argitsuetan eta soinu-dunetan desfilatzen. Opariak gainezka, kaleetan ibiliko dira, joko malabarak egiten eta haurrei gonbit egiten haiekin jostatu daitezten. Eta izango dira hankapalo argitsu batzuk, zuriz jantzirik, unibertso magiko hori girotzeko. Azkenik, desfilea osatzeko, Olentzero ikusiko dugu bere segizioarekin.

Hendaiako Gaztelu Zahar pilotalekuak, abenduaren 21etik 29ra arteko arratsalde guztietan, Gabonetako herria hartuko du, haurrentzako eta nerabeentzako animazioak izango dira: auto txiki elektrikoak, gaztelu puzgarriak, patinete elektrikoak, paseotxoak poney ganean, jolas erraldoiak, sumo jokoak... hori guzti hori berokuntzaz eta argiz hornitutako karpa batean, karpa girotuan.

Egitarau osoa ikusteko, <https://www.hendaye-commerces.com/>

HONDARRIBIA IRUN TURISMOA

www.bidasoaturismo.com



GOURMET EXPERIENCE

Hondarribia Irun Turismoak ibilbide eno-gastronomiko bat proposatzen du Hondarribian eta Irunen barrena bere Web atarian argitaratutako **Hondarribia-Irun Gourmet Experience** programarekin, dastatze saioak egingo dira eta bisitaldi gidatuak ekoizleen etxeetara, sukaldaritza tailerretara...

Irun eta Hondarribiko hainbat entitate dira proiektu honetan parte hartzaile, oraingoan hauek: Sardara, Hiruzta Bodega, Amona Margarita, Ikusnahi, Danontzat, Ola Sagardotegia, Felix Manso Ibarla, Bidasoa Basque Brewery, Papperino, Vinoteca Mendibil, Sakona

Aukeratu eta gozatu!

Informazio gehiago, www.bidasoaturismo.com => Gourmet Experience

HENDAYE TOURISME

www.hendaye-tourisme.fr



TXIK TXAK VÉLIBLEU

Vélibleu Bizikleta zerbitzua da **Laguntza Teknikoarekin Zerbitzu-Librean**, iraupen txikikoa, **Hendaia** eta Tarnose udalerrien arteko itsas bazterreko lurraldean.

Eguzki energiaren hornituriko 2 estazio jarri dira **Hendaian**. **Errepublikan plazan**, Udaletxetik hurbil, eta **Hondartza Handian**, minigolfetik gertu, daude.

Bizikleta horiek giltzatzeko sistema konektatua eta geo-aurkigarria dute eta bizikleta aurkitu, babestu eta desblokeatzeko aukera ematen du App Storen eta Google Playn eskuragarri dagoen telefono mugikorreko aplikazio erraz bati esker.

Argibide gehiago: www.txiktxak.fr

TURISMO NEWSLETTERRA

4. – 2019ko Abendua





Bidasoa - Txingudi

BIDASOA-TXINGUDI MUGAZ GAINDIKO PARTZUERGOA

AGENDA

URTE OSOAN

ONDAREA

Oiasso erromatar museoa: bidaiatu ezazu erromatarren garaira Oiasso portuko hondakin arkeologikoekin, bertako termekin, nekropoliarekin eta meatze ustiatuekin.

Eskoleta 1, **Irunen**.

www.oiasso.com

Kultur Informazio zentroa: ezagutu ezazu hiria bere historiaren, ondare ukiezinaren eta bere kulturaren bidez, egungoa nahiz tradizionala.

Arma Plaza 9, **Hondarribian**.

www.armacplaza.eus

Abbadia Gaztelu Behatokia: Etor zaitetz Euskal Herriko gaztelu bereziena ezagutzera edo berrezagutzera, bisita gidatuak urte osoan.

Route de la Corniche, **Hendaian**.

www.chateau-abbadia.fr

AZOKAK

Irunen, azoka larunbat goizetan Urdanibia plazan. Eguberrietako azoka abenduaren 20tik urtarrilaren 5era arte Luis Mariano plazan.

Hondarribian, baserriko produktuen azoka asteazkenetan Damarri plazan eta larunbatetan Portuan; brokantea eta bildumazaletasuna hilabetero 1. eta 2. igandeetan Kirol Kaian; arte azoka hilabetero 3. igandean Kirol Kaian. Gabonetako merkatua abenduaren 14tik 15era arte Santiago kalean.

Hendaian, merkatu txikia asteazken goizetan Errepublikan plazan eta larunbat goizetan Sokoburur.

NEGUAN

Abenduaren 6tik 8ra: "Be veggie" azoka beganoa, Irunen => Bidasoko Erakustazokan (FICOBA) elikagai % 100 begetalak kontsumitzeari eta produktu eta zerbitzu iraunkorrak, osasunerako onuragarriak eta animalia esplotaziorik gabeak, erabiltzeari buruz.

Abenduaren 6tik 8ra. Telethon Hendaian => AFMk antolatutako fibrosi kistikoaren aurkako borrokarako funtsak biltzeko nazio mailako kanpaina. Jarduerak Frantziako hiri guztietan antolatuko dira.

Abenduaren 6tik urtarrilaren 6ra arte: Gabonetako jarduerak Irunen => 500 m²-ko izotz pista Zabaltza plazan (12/6tik 01/6ra arte), Gabonetako azoka 6 etxolarekin Luis Mariano plazan (12/20tik 01/05era arte), haurrentzako 80 m²-ko jolastokia Pio XII.a plazan (12/20tik 01/6ra arte), San Tomas azoka Urdanibia plazan (12/21), Olentzero eta Gabon kanten jaialdia hirian barrena (12/24), abesbatzak kaleetan (12/31) eta Errege Magoen desfilea.

Abenduaren 7tik 29ra arte: Gabonetako ekitaldiak Hendaian => Olentzero Rock kontzertu solidarioa abenduaren 7an, "Gabon gaueko orrazkera misteriotsuak" ikuskizuna hilak 11n, Eguberrietako desfilea 14an, urte amaierako bela estropada 15ean, Gabonetako kontzertua 22an, urte amaierako hiri trail-a hilak 29an eta herri bustialdia egun berean.

Abenduaren 7tik urtarrilaren 6ra arte: Gabonetako ekitaldiak Hondarribian => Bideomapping Gipuzkoa plazan (12/07), xake txapelketa Jostaldin (12/15), udal bandaren kontzertua (12/15), gospel musika zikloa (12/18 eta 12/27), San Tomaseko feria, (12/21), Abesbatza kontzertua Portuko Elizan (12/22), Olentzero eta Gabon kanten jaialdia hirian barrena (12/24), Belen bizia Gernikako Arbolaren ondoan (12/28), Errege Magoen desfilea (01/05)..

Abenduak 14: Eguberrietako Super Amara Krosa Irunen => Herri mailako lasterketa, 5 kilometrokoa, Bidasoa Atletiko Taldeak antolatua. Irteera Colon Ibilbidean, 16:45etan..

Abenduaren 26tik urtarrilaren 4ra arte. Pin! Pan! Pun! Eguberrietako haur Parkea Irunen => Ficobako hiru pabiloiak haur eta helduez beteko dira edizio honetan Haur Parkeak eskaintzen dituen askotariko proposamenekin gozatzeko prest.

Abenduak 31n: San Silvestre lasterketa Hondarribian => lasterketa solidarioa, Sport Mundik 6 km-ko zirkuituan antolatua. Irteera San Pedro kalean, 16:30etan.

Urtarrilaren 17tik 26ra. Bixintxoak Hendaian => Herriko jaiak, adin guztientzako ekitaldi ugariarekin: azoka, ikuskizunak, lehiaketak, danborrada eta, bereziki lehenengo eguneko Pelot pirataren eta Neskaxaren desfilea.

Otsailaren 5ean: Santa Ageda Irunen eta Hondarribian => Santa Ageda egunaren bezperan ohikoa da hiriko abesbatzak kaleetan barrena abestea zorua makila betekin kolpatzen duten bitartean konpasari eusteko.

Otsailaren 25ean: Astearte Inautea Irunen, Hondarribian eta Hendaian => Kristauen Garizuma aurreko egunetan, mozerro eta karroza desfile bat antolatzen du hiri bakoitzak nahi duen egunean, herritarrek gozatzeko moduko beste jarduera ugarietz gain..

Martxoko hilabete osoan: Euskararen hilabetea Hendaian => Hainbat jardura antolatzen dira euskararen erabilera sustatzeko udal kanpainaren esparruan.

TURISMO NEWSLETTERRA

4. – 2019ko Abendua

